

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren ebazpena, zeinen bitartez agintzen baita Vitoria-Gasteizen Tuvisaren kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektua onesteko administrazio-prozedurarekin jarraitu dadila, ALHAOn —36. zk., 2020ko martxoaren 27a— eta egoitza elektronikon argitaratu zen proiektuaren jendaurreko informazioaren tramiteari dagokion administrazio-epearen zenbaketa —30 egun baliodun— berriro abian jarritz

2018ko martxoaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zen, Vitoria-Gasteiz hirian autobus elektriko adimentsua ezartzeko.

2018ko maiatzaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta Vitoria-Gasteizko Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Vitoria-Gasteiz hirian autobus elektriko adimentsua ezartzeko sinatutakoaren osagarria, autobus elektriko adimentsuen kargatze geldoko sistema hartuko duten kotxetegiaren eraikuntza proiektua egiteko.

Vitoria-Gasteizen Tuvisaren kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektuaren eta ingurumen-eraginari buruzko azterlanaren tramitazioari ekin zitzaizlarik —Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 33. artikuluan eta hurrengoetan araututakoaren ildotik—, jendaurreko informazioaren tramitera atera zen proiektu hori, hogeita hamar egun baliodunez, ALHAOn —36. zk., 2020ko martxoaren 27a— eta egoitza elektronikon iragarkia argitaratuz.

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zelarik, eta errege-dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz, bertan behera geratu ziren, eta etenda, proiektua tramitatzeko epeak eta aurreko paragrafoan adierazitako jendaurreko informazioaren tramitea. Nolanahi ere, alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren artikuluko bakarreko laugarren atalak aldatu egin zuen hirugarren xedapen gehigarria, eta sektore publikoko entitateei aukera eman zien modu arrazoituan erabakitzearen zenbait administrazio-prozedurarekin jarraitzea, baldin eta ezinbestekoak badira interes orokorra aldeztzeko eta zerbitzuen oinarriko funtzionamendurako.

Vitoria-Gasteizen Tuvisaren kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektua tramitatu eta onestea ezinbestekotzat jotzen da interes publiko orokorra babesteko eta udal zerbitzu baten oinarriko funtzionamendurako, hala nola den, kasu honetan, bidaiari-garraioa, Vitoria-Gasteizko Udalaren esparruaren barruan.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikuluan eta hurrengoetan aitortzen zaizkion eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko uztailaren 11ko eskuordetzearekin bat etorritik, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako hau,

EBATZI DU

Lehena. Vitoria-Gasteizen Tuvisaren kotxetegiak, lantegiak eta eraikin administratiboa eraikitzeko proiektua onesteko administrazio-prozedurarekin jarraitu dadila erabakitzea, eta, horrenbestez, agintzea jendaurreko informazioaren tramiteari dagokion administrazio-epearen zenbaketa —30 egun baliodun—, ALHAOn —36. zk., 2020ko martxoaren 27a— eta egoitza elektronikon iragarkia argitaratuz iragarria, jarraitu dadila, ezinbestekotzat jotzen baita interes publiko orokorra babesteko eta Vitoria-Gasteizko Udalaren bidaiari-garraioaren zerbitzuaren oinarritzko funtzionamendurako. Guztia ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren artikuluko bakarraren 4. puntuan xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa argitaratzea.

Hirugarrena. Prozeduraren tramitazioari aplikatu dakizkiokeen epeen zenbaketa —jendaurreko informazioaren tramitearen epearen zenbaketa barne— ebazpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da berriro.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean —argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita—, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean —argitaratzen den egunaren biharamunetik—; horretaz gain, zuzenbidean egoki den beste edozein ekintza edo errekurtso baliatzeko aukera dute interesdunek.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 5ean

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
AMAIA BARREDO MARTÍN